



Belgikako herrixka pobrea zen hura. Baina nahiko alaia. Jai asko egiten zituzten eta dena udaletxeak ordaintzen zuen. Baina jaiak joan-jaiak etorri diru gabe gelditu ziren. Bizitzeko nahikoa zeukaten. Herri guztiko argiena Jon zen, baina baita lotsatiena ere. Eta zera pentsatu zuten: Hiri batera eroan eta herrixkak zuen altxorren maparekin altxor bat aurkitzea hiritik hiru kilometrotara altxor bat bait zegoen. Eta ea hirian altxorra aurkitzen laguntzen zioten. Halaxe egin zuten.

Udaletxeak ordaindu zion autobusa. Autobusak eroan zuen joan behar zuen lekura. Helitzean, txoferrak esan zuen:

—Heldu gara. Jaitsi denok autobusetik.

Denak jaitsi ziren autobusetik Jon izan ezik. Txoferrak esan zion jaisteko, denbora galtzen zegoela eta. Baina Jon ez zer jaitsi, txoferrak ea beldurturik zegoen galdetu zion eta Jonek bu-ruarekin ezetz. Txoferrak berriro:

—Beno, ez izan beldurrik. Esan zertara etorri zaren eta neuk lagunduko dizut, baina beste pertsona gehiago behar badituzu laguntzeko nik erakutsiko dizut.

Jonek esan zion:

—Begira, Mendipinu herritik nator eta alkatearekin hitzegin behar dut. Derrigorrez. Lagunduko al didazu?

—Beno, ala bada... Bai. Goazen.

Alkatearengana joan ziren. Bere atea jo eta esan zuen:

—Nor da?

—Ni, txoferra.

—Oso ondo.

—Arratsaldeon alkate jauna! Autobusean mutil hau aurkitu dut eta zurekin hitzegin behar zuela esan dit. Hemen daukazu berau.

Jon harrituta gelditu zen alkateari begira gelditu zitzaion. Traje polit bat zeukan dena beltza zen, nahiko lodikotea zen, bere ilea beltza eta berak 40tik 50 bitarteko urteak zituen. Lotsagabeki esan zion txoferrari:

—Ondo, utzi biok bakarrik. Zer nahi duzu?

—Beno lehenengo eta behin, arratsaldeon. Begira, Mendipinuko herritik nator. Arazo bat daukagu. Guri jaiak atsegin zaizkigu, eta nori ez... Baina jaiak egitean, diru gutxi daukagula ohartu gara. Baina guk, hemendik hiru kilome-



trotara dagoen altxorraren mapa daukagu. Eta han nahiko diru dago. Gure alkateak esan digu zure laguna dela eta lagunduko nauzula. Eta hori uste dugu denok. Ez daukagu diru askorik eta diru hori behar dugu, bizitzeko. Mesedez, lagundu! lagundu! Zure laguntza behar dugu! Herri honen laguntza!

—Ondo da. Lagunduko dizugu. Baina altxor horren laurdena emango al diguzu?

—Bai, laguntzen baldin badidazu, bai.

—Orduan bihar hasiko gara. Zuk planoarekin bidea seinalatuko duzu eta laguntzaileek egingo dute lana. Orain sinatu orri hau. Hemen jartzen duena zera da: lanean laguntzearen altxorraren laurdena emango diguzula.

—Baina nik ez dakit idazten.

—Beno orduan egizu gurutze bat.

—Ondo da.

Gurutzea marraztu eta gauean hotelera joan zen.

Altxorra nola aurkitu zuten.

Goizeko orduetan, mendira joan ziren, orduan gaua zen, dena oso ilun zegoen, linternekin joan ziren bidea argituz.

Nik bidea erakutsi nien eta mapan markatuta zegoen tokira heldu zirenean gizonak lurrean zuloa egiten hasi ziren, lurrean zuloak

eta zuloak egin zituzten altxorra aurkitzen inguru hartan langileei esan nien arkaitz aldeak ondo begiratzeko. Gizonek ez zuten ezer aurkitzen; Jonek lanean hastea erabaki zuen. Azkenean berak aurkitu zuen arkaitz baten ondoondoan, ederto ezkutaturik kajaren gainean giltza zegoen eta giltza berak hartzea erabaki zuen, bada ezpada ere. Gero gizonei deitu zien aurkitu zuela altxorra esanez eta etortzeko den artean eraman zezaten altxorra alkatearenganantz.

—Oso ondo! Zer. Nolako altxorra, non dago giltza?

Giltza Jonek zeukan baina ez zion esan.

—Ez dakit. Altxorra aurkitu dugu baina giltza ez, bihar joango gara giltza aurkitzera.

—Bai. Bihar 7:30-etan joan.

Goizeko 7:30-etan, Jon eta besteak giltza aurkitzen hasi ziren. Jonek, boltsikoan zeukan giltza eta langileei esan zien:


—Ezer esaten baduzue hil egingo zaituztet. Entzun al duzue?

—Bai. Zer erakutsi behar diguzu, Jon?

—Beno, ba... giltza neuk daukat boltsikoan.

—Zer? Honetarako ibili gara giltza aurkitzen?

—Bai. Lasai. Orain alkatearengana joango gara giltza emanez. Ondo dago?





—Bai.

—Ongi, goazen.

Alkatearengana joan ziren. Eta alkateak, giltzarekin altxorra ireki zuen. Altxorra irekitzean, zigiluak aurkitu zituzten besterik ez. Alkateak esan zuen:

—Beno, nik zigilu hauek ez ditut behar. Zuretzat Jon.

—Ongi! Eskerrik asko! Zuk ordainduko al didazu autobusa?

—Bai! Joan lasai.

Momentu hartan joan zen etxera. Alkatearentzat zigilu haiek ez zuten garrantzirik. Baina, aintzinako zigiluak zirela, jakin balu...

Mendipinuko alkateak Jon alkate izendatu zuen eta denen artean jai-alai bat egin zuten eta orain zigilu haien prezioa zein zen esango dizuet: 100 zigilu ziren eta bakoitzak miloi-erdi balio zuen beraz, 50.000.000 hartu zituzten.

Denek zuten bizitzeko behar zuten dirua zeren eta 100-en bat biztanle ziren bakarrik. Jon ere oso ondo bizi zen zeren eta berak zuen diru gehien, baina horrek ez zuen konformatzen, berak gehiago nahi zuen. Egun batean etxetik ihes egitea erabaki zuen diru gehiagoren bila dirua urritu egin zitzaien eta horrela ba ihes egin eta Inglaterrara joan zen, han ingelesa ikasiz.



Berak behartsuei lagundu egiten zien, baina beti hartzen zuen berak ere laguntzaren bat edo beste.

Egun batean behartsu batek landare ale bat eman zion eta hau esan zion:

—Seme, gaur bertan landatu ale hau eta egun gutxi barru, larrosa handi bat hasiko zaitzu. Handik beste asko aterako dituzu eta larrosa haien erbatzak kolore askotakoak izango dira erbatz eta erbatz bakoitza kolore berekoa.

Horrela bat Jonek landatu zuen larrosa atea eta hurrengo egunerako larrosa handi bat hasi zitzaion ia zerurainokoa. Jendeak larrosa hura ikustearren ordaindu egiten zuen eta bitartean Jonek larrosa ale gehiago landatu eta saldu egiten zituen.

Horrela joan zen bere herrira diruarekin eta denek batzarra egin zuten diru hura nola aprobetxatu pentsatzeko. Jonek telebistako kanal bat antolatu zuen herrikoek bakarrik lan eginenez, horrela atera zuten dirua ondo bizitzeko eta jai alai gehiago egiteko.

Neskek bere fama ikustean denek beregana jo zuten eta Jonek neskatxa bat aukeratu eta berarekin ezkondu zen eta seme birekin ondo bizi izan ziren. ■